

MIKROIPUIN BILDUMA

LEIHOA



#Leihoa

2020ko apirilean, Arabako lagun desberdinek, etxean eta etxetik, GEU elkarteak proposatutako Twitter bidezko mikroipuin lehiaketan parte hartu zuten, guztiak inspirazio baten bueltan: *#leihoa*.

Erantzun bikaina ikusita, sarean jasotako mikroipuin guztiak liburu batean bildu nahi izan ditugu. Zuen gustukoa izatea espero dugu.

Hasi baino lehen, lehiaketako epaimahaiari eskerrak eman nahi dizkiogu. Edu Zelaieta, Katixa Agirre eta Iban Zaldua: izan duzuen eskuzabaltasuna Arabako leiho guztiak gainditu ditu.

Mila esker Maddalen Agirre Loinaz ilustratzaileari, mikroipuin guztien arima jaso duzu irudian.

Amaitzeko, zorionak lehenengo sailkatuari eta nola ez, mila-mila esker mikroipuinak idatzi dituzuen twittero guztiei; zuena da liburu hau.



80 ipuin jaso dira @GEUelkartea -ren lehiaketan.

80 begirada, istorio, oroitzapen, esperientzia, errelato, burutazio, asmakizun, martzianada... #leihoa protagonista.

80, alajaina!

Gasteiztarron sormenaren #osofan
#BibaGEU #euskara #gasteiz



Ilustrazioa: Maddalen Agirre Loinaz @madd

Animali basatien asanbladan ez zen giro...
Erbiek, kumeak etxean geratzea proposatzen zuten
Oreinek, elkarren arteko tartea zabaltzea
Basurdeek, agureenganako zaintza areagotzea
Txoriek, airea berriro kutsatuko zela zioten.
Gizakibirusa kalean zen berriz.

@otero_mikel
Lehenengo sailkatua

25. eguna da eta hor daukat niri pegatuta berriro ere, sudurra eta kopeta neregan jarrita. Begiak, aldiz, parkeko txirristan iltzatuta. Batzuetan, ahal duen indar guztiarekin kolpatzen nau, amorru biziz.

Ez da nire errua, Elene, ez nintzen inor konfinatzeko jaio.

Egunero leihora ateratzen zen txaloak ematera. Horrela ezagutu zuen. Urrunegi bereizteko. Itzal bat zen. Egunero txaloak eta haien arteko agurrak. Gero keinuak, oihuak, musuak. Konfinamendua bukatuta kalera atera zen laguna agurtzera. Ikusi zuen. Txikitako etsaia zen.

Leihoen iraultza. Lehena, baserrietan, hormetako baei beira jarri zienekoa. Bigarrena, informatikoa, sistema eragilea leihoen bidez antolatu zuenekoa. Hirugarrena, koronabirusena, leihoz leiho mendebaldeko mundu-ikuskerara aldatu eta jendarte hobe bat ekarri zuenekoa.

Sukaldeko leihoak bizitzaren ikuspegi berri bat oparitu dit. Hari esker, auzokide batzuen laguna egin naiz sekula lagunik izan ez dudan hau. Konfinamendua bukatuta, haien etxera gonbidatuko naute seguru asko. Agorofobia gaintitzen dudanean pentsatuko dut zer erantzun.

Alzheimerrak lehen baino errazago lotzen du leihotik ikusia txikia zeneko munduarekin. Herriaren bakea, autorik gabeko kaleak, bitxilorez beteriko zelaia, txorien txioak. Zerbait arraroa ere; gaur ehiztari asko etorri dira, denok txakurrarekin, denok eskopetarik gabe.

Astelehena.

Maren etxera heldu eta Negurekin irten da.Fermin leihoan dago.Berriz ere azalpenak poliziaren aurrean.

Asteartea.

Ferminnek ospitalera joan behar izan du.Maren bere medikua izango da.Ferminnek, ahoa bete hortz, leihoko detektibe izateari uztea erabaki du.

-Maite zaitut.

-Baita nik ere.

Inka triste ohean sartzen da loak hartuz. Edgarren mugikorra argitzen da. Emeki WhatsAppeko tximeletatxoa, hegoak astinduz, pantailatik ihesiz, leihotik hegan, hiria zeharkatuz. Inkaren leihoraino, bere ezpainetan pausatzen da.

Gora...behera...Bere oihaletik arin mugitzen da zirkuko akrobata fina. Poliki-poliki baina seguru, nire begien aurrean. Bat batean mugimendu azkarra, espero ez nuena, sarean salto egin du.

Hau ezustea!

Leihotik sartu den eulia preso akrobata txikiaren sarean.

Maite dut bulegoan leiho aldera begiratzea begiak lasaitzearren. Azkenaldian, ez dut lehen bezain argi ikusten, eta kezkatzen hasia naiz. Gaur, berriz, lehen bezain ondo ikusten dudala konturatu naiz. Orduantxe ikusi dut pisu-kidea kristalak garbitzeko potea eskuan duela.

Arnasgune zaitut, askapenerako giltza. Kafea hartu ostean zabaltzen zaitut, parez pare. Hara, eguneko lehen printza! Azkenaldian, gainera, inoiz baino adiskideago, bizitza ematen didazu komuneko leiho ñimiño horrek.

Begira-begira zaitut, nire gorputz gardenean zerbait aurkitu nahiko bazenu bezala. Begirada irmoa, zelako jakin-mina. Bat-batean, berotasun atsegina, izpi goxo bat ari zait barruraino sartzen. Nigana gerturatu eta zabaldu egin nauzu orduan, irribarrez.

Leihora begiratu eta bi errealitate nire aurrean: mendi berdeak, loreak... ASKATASUNA batetik; luzaroan eguzkia ikusi ez duen zonbi aspertu bat, bestetik. Etorkizuna iragar daiteke: bi errealitateak pozik elkartuko dira, nahiz eta ezin den guztia jakin: NOIZ?

Leihotik begira igarotzen ditut egunak, egoera honetan leioha edukitzea pribilegio bat dela pentsatuz; agian egunen batean kaleak zapalduta berriro leiohaz ahaztuko naizela uste dut, orduan, leiohorik ez dutenekin gogoratzen naiz. Bai, gogorra da bizitza presoarentzat.

Bazen behin leiho bat... Gogokoa genuen. Kanpora begiratzeko parada ematen zuen... eta, begiak itxita, barrura begiratzeko ere bai. Baina leiho hura ez zen kontent bizi. Harek atea izan nahi zuen!!!

Udaberriaren argiak piztu direla ohartarazi gabe, leihotik sartzen diren txorien kantuek gor bihurtu dute. Pantailen loreetan baino ez du negutik alde egiteko aukera, erdi egiak melodia gisa saldu dizkigutenean. Udaberri lapurtua.

Leioa giltzarrapoz itxi zuen.

Amaia Egaña leihotik bota zen etxea kendu behar zion epailea atarian zegoela. Erailketa hori Caixabankek agindu zuen.

Hau ez da mikroipuina, pertsona txikien, akaso mikrojendearen, errealitatea baizik.

Askatasuna leihotik joan zitzaion. Ziegako ate itxiak bizipoza lapurtu zion. Urruntze behartu horrek maitasun hariak apurtu zituen. Konketak azken itxaropen tantak irentsi zituen.

Hala, 20 urte ondoren, gau batean, bere arimak barroteen artetik ihes egin zion.

Goizean berriz leihotik begira, zeozer ezberdin ikusteko asmoarekin agian. Auzokide berdinak, ekintza berdinak. Gauean ilargia ikusi dut leihotik begiratzean, bere argitasunaren zain nago iluntasunean. Auzokide berdinak, desio ezberdinak.

Egunsentian sakon, egunaren lehen orduetan apal, goizak aurrera egin ahala bizi, eguerdian boteretsu, arratsaldean samur, ilunabarrean magiko...

Argiaren dantzaz gozatzearen oparia, leihotik bada ere.

Urteak eman zituen etxean biluzik lasai ibiltzen hasi arte; barne lana. Zinez maite du orain. Leihoak ez ziren arazo, nekez egoten zen bizilagunik bertan. Egunotan biluztasuna etxeko intimitatetik harago doala badaki. Eta gustuko du: "Hau naiz ni".

Hiriko periferiako babes ofizialeko etxe bateko leiho ertainetik egunean asko jota bi orduz sartzen diren eguzki izpiekin izugarrizko eskertza sentitzera heldu zen... eta dena ulertu zuen.

Duela asko itxi nuen. Orain denboran preso nabilela, zergatia argitzen saiatzen naiz. Barrutik dena ikus dezaket. Kanpotik bakarrik iluntasuna. Bat-batean euri tanta txiki bat isuri da kristal barrenean. Ukitzeko bihozkada izan dut. Leihoa ireki dut orduan. Akabo.

Kartzelan, leihorik gabe, barrura begiratzen ikasi nuen.
Orain, leihotik begiratzen dut, barruak itotzen nauelako.

Leihotik begira jarri zen. Gustatuko litzaioke handik, mendi erraldoiak ikusi eta txorien kantak entzungo balira.

Baina ez, handik fabriken ke beltza baino ez zen ikusten. Belztasun horretan desagertu zen Manuel goiz baten. Belztasun hartan hil zen bere maitasuna.

Leihoan jarri naiz eta zenbat
islada begiratzean
Senti dezaket egongo banintz
horien guztien atzean
Trantzean nago haize freskoa
Aurpegiraino heltzean
Gasteiz osoa zeharkatu dut
Leioz leiho bapatean
Zure aurpegia ikusi baitut
kristalaren bestaldean.

Hotza ez sartzeko. Etxea argiztatzeko. Urrutiko mendiak ikusteko. Goizero gelako zirrikituak egurasteko. Gortinak jartzeko. Asteotan ikasi dut leihoek zigorgabetasuna emateko ere balio dutela, kalean dabilzanei gure erraietako kristal apurtuak jaurti diezaizkiegun.

Nire lagunei ez diet pasatzen uzten eta batzuetan hiltzen ditut. Nolako laguna naizen. Ni leiho bat naizela eta nire lagunak txoriak direla jakiten bazenuten... Zuen laguntzarekin, hau bukatzea espero dut.

Ezin dut leihotik ikusi, ez zaborra jaistean, ez erosketak egitean... Gaez bai, ikus dezaket, hor dago, nire ondoan, uki dezaket, besarka dezaket, muxuka dezaket... Esnatzen naizen arte. Ez dakit hau bukatzean amesten jarraitu beharko dudan.

Leihotik begiratzen duzu orain bizitza; bai, orain arte erreparatu ez zenion leiho hori, denborarik eskaini ez diozuna, baloratu ez duzuna, zaindu ez duzuna... azkenean konturatu zara hor dagoela, beti hor egon dela.

"Zer da leihoa?", galdetu dio Anek amari. "Argia sartzen uzten duen paretako zuloa", amak. Atzetik Iker, seme zaharrena: "Auzokideak zelatatzeko ezkutalekua da, munduari begiratzeko gotorlekua, askok pertsona sentitzen jarraitzeko duten aldea..."

Lehia.

Ingurunearen berri ematen dut, leihoak.

Argitasuna ematen dut, lehiatzeak.

Ni., leihatilak.

Isilik, txiki hori!, beste biek.

Txikia? Mundu handiaren berri ematen diot presoari, eta
itxaropena gaixoari, leihatilak.

Irakurle on, tamainari ez egin jaramon.

Leihotik begira!
Halaxe baretzen,
haren hira.

Egoerari ezin
eman bira.
Noiz arte hala
segitu beharra?

Etxean, beti bezala,
batetik bestera.
Momentuz, ondo;
baina etorkizunean, nola?

Egunero, zortzietan,
dator erantzuna:
ez etsi, laster etorriko da
dena lehengora!

Zomorrotxoa ahoan sartu zen, apurka-apurka hazten joan eta, azkenerako, gorputz osoaz jabetu zen. Horren ostean, besteengana jo eta, kolpe batez, errealitate osoa eraldatu zuen, beste errealitate bat igarriz eta sortuz

20:00etan puntuan hurbiltzen da leihora txaloak jotzera. Lehenago balkoietan txaloka, oihuka eta irrintzika adoretzu ibiltzen ziren bizilagunek orain uste dute zoratuta dagoela 7. solairuko gizona.

Txori txikia kaiola barrutik leihora begira gelditu zen, txioka abesten jarraitzen zuen bitartean. Kaleko txori libreak apurren bila hurbildu ziren leihora, kaiolako itxialdi gogorraz jabetu gabe. Batzuetan kaleko hotzak etxeko epeltasunari irabazten dio.

20 metro karratuko ziega hartan zaila zen argitasuna bilatzea. Goizero, 6etatik 8etara eguzki izpi goxo haiek sartzen ziren. Egun luze haiei zentzua ematen zion argitasunak, iluntasunari desafio eginaz. 2 orduz argitasuna iluntasunari gailentzen zitzaion

Egunero ordu berean begiratzen nuen leihotik, pareko eraikineko horma gorri haien artean leihoren bat noiz irekiko zain. Azkenean, haur txiki batek gortina ireki ta niri begira gelditu zen. Ez zuen hitz egiteko adinik, baina aurpegi haren irribarreak ez zuen hitzik behar.

Monterrosok leihotik begiratu zuenean, birusak han jarraitzen zuen.

Egoerak herritik hirira etortzera beharturik, bere baratzaren nostalgiak sukaldeko leihoan tomateak landatzera eraman du hirugarren pisuko Pantxike. Kris-kras. Artazi on batzuk eta familiakide bakoitzaren galtzerdi pare bat.

Leioa zabaldu nahi izan zuen urrunekoen bizitza kuxkuxeatzeko.

Baina horren ordezt bihotza ireki zitzaion eta gertukoaren bizitza ezagutzen hasi zen; bere buruarena.

Badira irekitzen ez diren leihoak
Zabaltzen ez diren besoak
Tauputzen ez duten bihotzak
Irri egiten ez duten ahoak
Giltzik gabeko sarrailak
Izarrik gabeko zeruak.

Horiek guztiak ipuinekin argitzen, zabaltzen eta pizten
dira.

Urteak eman zituen "lehioa" ondo idazten ikasi arte, bien bitartean, "bentana", "bentanea" edo "bentanie" erabiltzen zuen.

Biztanleak asper eginda daude. Zer ba? Herrian ez dago estaldurarik. WhatsApp ez dabil. Zikoin bikote batek antena telefonikoan habia eraikia du. Jasanezina... Lasai dagoeneko jaitsi dute . Orain Zikoinak eten gabe gure buruen gainean. Badugu despistatzeko baimena!

Begiratu guri, orain gara aske. Giltzapetuta egoteko ez ginen jaio, ez zuen karioletan bizitzeko. Kaiolak asmatu zenituzten guretzako eta orain zuek zaudete hor. Baina, lasai egon, leihoak dituzue askatasuna sentitzen.

Lau pareten artean batzen dira egunero pertsona berberak. Giltzapetutako asteak doaz aurrera eta horma gardenetatik bakarrik sumatzen dut argia, bizitza. Non daude ezkutatu diren egunsentiak?

Orain leihoak dira nire begiak, bertatik sartzen baitira faltan botatzen ditudan eguzki izpiak. Haizearen falta sentitzen dut kristalaren beste aldean. Zutik, kanpora begira agerian geratzen dira barruan ditudan nahi guztiak.

Lauki argitsuek harrapatuta zegoen, begiak josita beti irudietan. Egun hartan, talka batek bueltatzera behartu zuen. Leihoan, zauritako txoria. Zainketak, askapenak eragindako bihotzeko beroa eta janlekua nora itzultzeko. Ordudanik, lauki argitsu berriari ezin eutsi.

Emakume alaia zen, inoiz ez zuena amesten. Gauero leihoa ireki ohi bazuen, haize berria sartzekotan, gau hartan, auzoko leihoetan sortzen zen brisa. Gogoz arnastu zuen, bere poza biribiltzeko prest. Haize solidario horretaz lagunduta, ametsetan eman zuen gau osoa.

Afrikan jaioak ziren. Europara etorriak umeak zirela.
Natura basatia hain barneratua, hiriko grisera ohitu ezin.
Supituki, leihotik begiratu eta bertatik jauzi egin.
Dardarka eta blai aurkitu zituzten. Amona, kotoia ari du!
Azkenik, etxean sentitu, elurretan dantzan.

Ospitaleko leioa etxekoa noiz izango zain gaixoa. Esperantza. Etxeko leihotik ikusten den karrika jendez noiz beteko zain konfinatua. Esperantza. Noizbait, etxe posible baten leihotik lehenagoko gizarte eraldatu bat noiz iritsiko zain etxegabea. Esperantza.

Leiho bakoitzetik, pasai desberdin bat: kanporantz,
barrurantz.

Baina goizero, leiho horietatik,
leku guztietan,
goizeko lehen eguzki-printzekin ametsak, gogoak, desioak
sortzen dira,
bizirik gaudela sentiarazteko.

Egunero zein azkar bizitza doan ikusten dugu leihotik,
baina bat-batean dena gelditu egin izan da.

Normaltasunaren nahia?....

Hobeto, bizitzaren moteldunaz gozaten ikas dezagun!
Kliskatzen duen aurpegia.

Etzanda. Etsita. Beste egun zail bat.

Galdera bat buruan: noiz arte?

Irekitako leihotik, urrutik, txaloak entzuten hasi zen, gero eta hurbilagoak, biziagoak.

Txalo horiek irribarre goxo bat margotu zuten ezpainenetan.

Altxarazi zuten, prest zegoen aurrera egiteko.

Ama

Zarautz, 1989: ogitartekoa, 4 ontza txokolate eta mandarina prest, semea eskolatik noiz iritsiko zain, leihoan, gortina atzean.

Mutriku, 2020: beste leiho bat, beste gortina batzuk, eta dagoeneko ogitartekorik ez. Zain jarraitzen du.

Luze egiten ari zaio. Zaigu..

Aita

Bizirik balego, orduak emango lituzke balkoian, txorizo pintxoa eta txakolina lagun. Auzoko guztiek zekiten balkoia maite zuela: maiz eseri ohi zen berea bakarrik zen aulkian, dotore.

Uste dut leihotik begira ez nuela inoiz ikusi.

Gure etxeak ez du balkoirik.

Lolak agur esan zuen klaseko txatean.

Oporretan gelako umeei maitagarrien marrazkiak egingo zizkiotela bazekien.

Umeei beti esaten baitzien maitagarrien ipuinak irakurtzeko. Ez dragoiak existitzen direla pentsatzeko, baizik eta garaitzeko modukoak direla ikasteko.

Amak askotan garbitzen zuen leihoaren barruko aldea, ez ordea kanpokoia. Maiz egiten zion so barruko aldeari, ez kanpokoari. Behin, barrukoa kanpokoia baino hobeto zaintzen zuela ohartu zen. Ez zen larritu, barrukoa hobeto zaintzen dute denek.

Lagun berria egin dut. Orro egiten dit. Leiho alboan egoten da. Begiratzera, kuxkuxeatzera animatzen nau. Begirada kristal gardenetik haratago zuzendu dut, iluntasunaren erdian bi begi-nini topatu ditut. Letaginak ere erakutsi dizkit auzokidearen leihoko lehoiak.

Altxatu eta leihotik begiratu. Anbulantziakoak larri dabilta ohatila eskuetan. Izua airean. Oheratu aurretik leihora hurbildu. Amak besoetan darama jaioberria, kantu gozoan. Itxaropena gauean. Bihar berriro argituko du eguzkiak leioa.

Kafea bor-bor, piztu dut irratia. 'Pangolin World War' hasi dela dio kazetariak. Eskura dugun janariarekin garajera jaiste da gomendioa. Eguzki izpiek kiskaliko omen gaituzte. Pertsiana igo dut leihoari beldur, eta esnatu naiz. Kafe usaina dago.

Dementzia berea egiten dabil amamaren buruan. Egunerokoa idazten du geriatraren aholkuz. Atzo hauxe irakurri zidan: Aprillak 9. Gaur urtiekin induas. Sortziretan bentana urten dot. Ausokuek be bentanien eguesan. Bentanatik bentanara txalo ioten asi ez iatas ba...

Hari batetik behera egin zuen, alegiazko. Leihotik barrura egin zuen, plastikozko. Leihotik plazara egin zuen, hezur eta haragiko. Orduantxe hasi ziren algara batean:

Zeledon! Etxe berria egin duk!

Zeledon! Balkoian leiho on!

Bertatik nabil egunero begiratzen. Dena zehatz-mehatz aztertzen, ea norbait pasatzen den begiratz edota zerbait aldatu den aztertuz. Berrero ere nire leihoaren aurretik noiz pasatuko den pentsatuz. Eta noiz bueltatuko garen errealitatera?

Leioha zuen arnasgailu, handik begiratuta ama oroitzen zuelako lapiko arteko saltsan; eta aita, kulunkarian, literatur bidaian; eta iloba jaio zeneko zorion malkoen zipriztina; eta lagunak... Orduan itolarriari agur esaten zion, haien guztien begien ondoan zegoelako.

Ia zortziak. Irrikitan zaude leioa irekitzeko. Gomina eta guzti jarri duzu bere begirada erakartzeko. Bai polita dela! Bizilaguna. Eskuei darien itxaropenaren menpe zaude. Hasi da, txaloka. Hala, zure bihotzak eskuen erritmoa hartu du berriro.

Leihotik at sartu zen etxera. Isiltasunaren oihartzuna gure egin genuen.

20:00ak. Leihotik so hankaz-gora pasean doakigun
kalekumeon bizimodu hutsalari.

Saguzarrak noraezean dabilta hegan, aztoraturik. Esku-
zarten oihartzunengatik.

Kanpoko argiak itsutu egiten nau, begiak zabalik izan arren ez dut ezer ikusten. Bat-batean, txalo zaparrada bat entzuten da kalean. Arratsaldeko zortziak dira, zer izango ote den jakin-minaz, leihora hurbildu naiz. Aurpegian airea eta itxaropena.

Leihotik isiltasuna, hots mugatuak, natura inoiz baino askeago. Parean dudan gaztainondoaren adarrak, gizatasun gosez, besarkatu nau.

